Getxo
UDAL EGOITZA
RESIDENCIA MUNICIPAL

Ormetxe, 22
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf. 94 403 47 40 - 94 491 04 99
Faxa: 94 403 47 41

| JESUSEN BIHOTZAREN UDAL EGOITZAKO ARTEZKARITZA-KONTSEILUAK 2019KO IRAILAREN 18AN EGINDAKO OHIKO BATZARREKO AKTA | ACTA DE LA REUNION ORDINARIA CELEBRADA POR EL CONSEJO RECTOR DE LA RESIDENCIA MUNICIPAL SAGRADO CORAZON, EL DIA 18 DE SEPTIEMBRE DE 2019 |
|---|---|
| **BERTARATU DIRENAK**<br>**PRESIDENTEA** | **ASISTENTES**<br>**PRESIDENTE** |

**Dña. Kektse Eiguren Alberdi and.**

| **BATZARKIDEAK** | **VOCALES** |
|---|---|

**D. Alvaro González Pérez jn.**
**D. Inacio Uriarte Gorostiaga jn.**
**D. Iñigo Urkitza Yañez jn.**
**Dña. Arantza Rica Alvarez and.**
**D. Francisco J. Elorza Hormaeche jn.**
**Dña. Alicia González del Valle and.**
**Dña. Cristina Zamora Chuquiguanga and.**
**Dña. Nerea Guijarrubia Garcia and.**
**Dña. Carmen Díaz Pérez and.**
**Dña. Paula Amieva Clemente and.**

| **IDAZKARIA** | **SECRETARIA** |
|---|---|

**Dña. Arantza Minguez Trascasa and.**

Aipatutako kideak etorri dira, eta Keltse Eiguren Alberdi andrea presidente dela, batzarra 11:50ean hasi da.

Con la presencia de los vocales reseñados al margen, y bajo la presidencia de Dña. Keltse Eiguren Alberdi, dió comienzo la reunión a las 11:50 horas.

**21.- Egoitza Artezkaritza Kontseilu berriari aurkeztea**

Presidenteak bilerari ekin dio eta Artezkaritza Kontseilu berriko kideei beren burua aurkezteko eskatu die.

Ondoren, presidenteak jakinarazi du dosier txiki bat egin dela Egoitzari buruzko informazio orokorrarekin, kide berriei aurkezteko balio dezan. Halaber, dei egiten die guztiei datorren urriaren 22an, 12:00etan, Egoitza

**21.- Presentación de la Residencia al nuevo Consejo Rector**

La Presidenta inicia la sesión pidiendo a las personas miembros del nuevo Consejo Rector que se presenten.

Posteriormente, la Presidenta informa de que se ha elaborado un pequeño dosier con información general de la a Residencia con el objetivo de que sirva de presentación a los nuevos miembros. Así mismo, invita

bisitatzera etor daitezen. Bisita egingo dutenek gerenteari posta elektronikoko mezu bat igorriz baieztatzeko eskatu du.

a todos ellos a que visiten la Residencia el próximo 22 de octubre a las 12:00 horas. Solicita confirmación de la asistencia a la visit aa través de email a la Gerente.

Ondoren, Gerenteak prestatutako dosierra banatu eta edukiaren berri eman die kide guztiei (dokumentua erantsi da).

A continuación la Gerente reparte el dosier elaborado e informa de su contenido a todos los miembros (Se anexa documento).

Azaldutakoarekin lotuta, egoitza zentroei buruzko dekretu berriak egoitzari dagokionez eragingo dituen aldaketei buruzko galdera egin du Paula Amievak. Gerenteak esan du joan den astean argitaratu berri dela eta aztertzen ari direla.

Relacionado con lo explicado, Paula Amieva pregunta cómo va a modificar el nuevo Decreto de centros residenciales a la Residencia. La Gerente comenta que acaba de salir publiocado la semana pasada y que se está estudiando.

Egoitzan ematen ari den prestakuntza zertan datzan ere galdetu du Paula Amievak. Gerenteak azaldu du ez dela prestakuntza puntuala, prestakuntza zabalagoa eta integralagoa baizik, eta helburua gure arreta-eredua aldatzea dela, pertsonen bizitza-historiara egokitzeko gai izango dena erakundea bera izan dadin pertsonen ongizate handiagoa lortzeko. Eskaintzen ditugun zaintza eta zerbitzuetan aurrera egitea da kontua.

También pregunta Paula Amieva en qué consiste la formación que se está impartiendo en la Residencia. La Gerente explica que no es una formación puntual , sino que es una formación más amplia e integral que lo que pretende es un cambio en nuestro modelo de atención donde sea la organización capaz de adaptarse a la historia de vida de las personas para lograr un mayor bienestar de las mismas. Se trata de avanzar en los cuidados y servicios que ofrecemos.

Paula Amievak galdetu du ea lizitazioaren pleguetan hori guztia zehaztuta zegoen eta ea enpresa esleipendunak horretarako esperientzia nahikoa duen. Gerentziak baietz erantzun die bi galderei.

Paula Amieva pregunta si en los pliegos de la licitación estaba todo ello definido y si la empresa adjudicataria tiene la sufiente experiencia. Desde Gerencia se le responde afirmativamente a ambas preguntas

Presidenteak jakinarazi du prozesu hori guztia aurreko legegintzaldian ere azaldu zela. Pertsona ardatz duen arreta-eredu baterantz bideratzea da kontua.

La Presidenta informa de que todo este proceso ya se explicó en la anterior legislatura. Se trata de ir hacia un modelo de atención centrada en la persona.

**22.- Informazio orokorra**

**22.- Información general**

22.- Laguntzen Batzordea

22..- Comisión de Ayudas

Presidenteak azaldu du Egoitzako Laguntzen Batzordea osatu behar dela. Adierazi du batzorde paritarioa dela, eta bertan ordezkatuta daudela alde politikoa eta alderdi soziala. Horretarako, proposatzen du talde politiko bakoitzak Artezkaritza Kontseiluan dituen ordezkari kopuru bera izendatzea eta era berean banatzea. Hala ere, astebeteko tartea ematen du Gerentziarako bere hautagaien berri eman dezaten. Jakinarazpenik jasotzen ez bada, Artezkaritza Kontseiluko kideak direla ulertuko da.

La Presidenta explica que hay que conformar la Comisión de Ayudas de la Residencia. Explica que es una comisión paritaria donde están representada l aparte política y la parte social. Para ello propone que cada grupo político designe el mismo número de representantes que en el Consejo Rector y reparatida de l amisma manera. No obstante, da un margen de una semana para que comuniquen sus candidatos a la Gerencia. De no recibirse comunicación, se entendería que los miembros propuestos son los del Consejo Rector.

Getxo
UDAL EGOITZA
RESIDENCIA MUNICIPAL

Ormetxe, 22
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf. 94 403 47 40 - 94 491 04 99
Faxa: 94 403 47 41

Javier Elorzak langileari buruzko galdera egin du. Presidenteak erantzun du langileek berek izendatuko dituztela, alderdi politikoaren kopuru berean.

2.3 Kreditu gehigarria

Presidenteak jakinarazi du 92.000,00 euroko kreditu gehigarriaren proposamena eraman nahi dela Antolakuntza Batzordera, egoitzako aurrekontuaren I. kapitulurako, aurrekontuetan osotu gabe zegoen 2019ko soldata-igoerari aurre egiteko. Ez da horren inguruko galderarik egin.

**23.- Eskaerak eta galderak**

Presidenteak jakinarazi du Elkarrekin-Podemosen idazkia jaso dela, eta bertan zenbait informazio eskatu duela. Paula Amievak idazkia irakurri du. Ondoren, presidenteak gerenteari eman dio hitza.

Gerenteak azaldu du Lehendakaritzaren 167/2019 Ebazpena Egoitzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetza-hitzarmenari buruzkoa dela, Egoitzaren beheko solairuan dagoen Eguneko Zentroari buruzkoa, eta ez duela zerikusirik bigarren solairuan dagoen eta 2017an abian jarri zen Eguneko Arreta Zerbitzuarekin. Argitu du sinatutako lehen hitzarmena 2008koa dela, baina Eguneko Zentroa 2011ra arte ez zela martxan jarri, eta II eta III. graduetako mendetasuna duten 30 lagunentzako edukiera zuela. Egin dena hitzarmena berritzea izan da. Azalpen horrekin ulertzen du galderak bere kabuz erantzuten direla.

- Mendetasuneko I. maila duten pertsonek Udalaren Eguneko Arreta Zerbitzuan (EAZ) sartzen jarraitu ahal izango dute.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren edukierak 12 pertsonatan jarraituko du.
- Lagapena 4 urterako dago ezarrita, eta luzatu egin daiteke, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan oinarrituta.
- Eguneko Zentroaren kudeaketa eta udalaren atalaren kudeaketa bereizita daude. Bakarrik lagatzen zaie espazioa.
- Lagapen hori "sine die" luzatzeari edo ez luzatzeko uzteari dagokionez, gerenteak

Javier Elorza pregunta por la parte social. La Presidenta responde que serán designadospor los propios trabajadores en igual número que la parte política.

2.3 Crédito Adicional

La Presidenta informa de que se quiere llevar a la Comisión de Organización la propuesta de crédito adicional por importe de 92.000,00.-€ con destino al Capítulo I del presupuesto de la Residencia para hacer frente a la subida salarial del 2019 que no estaba comtemplada en los presupuestos. No hay ninguna pregunt a al respecto.

**23.- Ruegos y preguntas**

La Presidenta informa de que se ha recibido escrito de Elkarrekin-Podemos donde solicita una serie de información. Pula Amieva procede a leer el escrito. Posteriormente, la Presidenta cede la palabra a la Gerente.

La Gerente explica que la Resolución de Presidencia nº 167/2019 se refiere al Convenio de colaboración entre la Residencia y la Diputación Foral de Bizkaia relativo al Centro de Día ubicado en la planta baja de la Residencia y que no tiene nada que ver con el Servicio de Atención Diurna municipal ubicado en la planta segunda y que se puso en marcha en 2017. Aclara que el primer Convenio firmado data de 2008 aunque el Centro de Día no empezó a funcionar hasta 2011, teniendo una capacidad para 30 personas con grados de dependencia II y III. Lo que se ha hecho es renovar el Convenio. Con esta explicación entiende que las preguntas se contestan por sí solas.

- Las personas con grado I de dependencia van a poder seguir accediendo al Servicio de Atención Diurna municipal (SAD)
- El aforo del SAD seguirá en 12 personas.
- La cesión está establecida por una duración de 4 años, prorrogable, en base al artículo 49 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, del Régimen Jurídico del Sector Público.
- La gestión del Centro de dïa está separada de l agestión de l aparte municipal. Sólo se les cede el espacio.
- En cuanto a alintención o no de alargar"sine die" dicha cesión, la Gerente informa de que a ella lo que le compete es informar de la

jakinarazi du berari dagokiola zerbitzuaren martxaren berri ematea. Ona dela uste du, eta komunitatearentzat beharrezkoa den zerbitzua ematen duela.

marcha del servicio. Entiende que es buena y que da un servicio necesario para la Comunidad.

Paula Amievak dio nahasmena gertatu dela ez zelako adierazi kontua hitzarmena berritzea zela. Gaia argitutzat jo da

Paula Amieva dice que la confusión se hadado porque no se indicaba de que se trataba de una renovación del Convenio. Se da por aclarada la cuestión

Aztertzeko gai gehiagorik ez dago, eta batzarra goian adierazitako eguneko 12:15ean bukatu da. Beraren emaitzarekin akta hau egin da. Aktaren edukiaren fede ematen dut, kontseiluko idazkari naizen aldetik.

No habiendo mas asuntos que tratar, se levantó la sesión a las 12:15 horas del día de la fecha señalada en el encabezamiento, extendiéndose con su resultado la presente Acta, de cuyo contenido doy fe, como Secretaria del Consejo.

**PRESIDENTEA**
**LA PRESIDENTA**

**IDAZKARIA**
**LA SECRETARIA**